

AKTEA**(2017/07)****EUSKERA BATZORDEA**

Bilkurea: Ohikoa
Datea: 2017ko abenduaren 21a
Lekua: Kultura-etxeko batzar-gelan
Hasiera-ordua: 14:05
Amaiera-ordua: 14:45

Bertaratuak

Batzordeburua : Juan Karlos Agirre Santa Maria

Batzordekideak: Benito Ibarrolaza Munitiz
Alazne Zumeta Garro
Jon Goikolea Ojinaga

Teknikari aholkularia: Aitziber Gabikaetxebarria Goikoetxea

Idazkaria: Ainara Uriarte Bilbao

Bertaratu ez diranak

Batzordekideak: Aingeru Astui Zarraga
Aritz Abaroa Cantuariense
Idoia Platas Arenaza
Sergio Ugalde Zabala

Aztergaiak**GAI ZERRENDEA**

- 1.- Aurreko akta irakurri eta onestea
- 2.- Euskera ikasteko diru laguntzak - esleipena
- 3.- Gurasoentzako euskera eskolen kontratua
- 4.- Etorkinentzako euskera eskolen kontratua



- 5.- Ikasle etorkinentzako euskera eskolen kontratua
- 6.- Berbalagun egitasmoa garatzeko kontratua
- 7.- 2018/2022 aldirako Plan Estrategikoa osotzeko lanak
- 8.- Euskaraldiaren dinamizaziorako zerbitzu-kontratua 2018. urtea
- 9.- Telp balorazioa
- 10.- 2017-18 ikasturtean euskera eskoletan matrikulatutako langileak
- 11.- Osakidetzako saioak
- 12.- Galderak eta eskariak

Esan-eginak eta proposamenak

1.- AURREKO AKTA IRAKURRI ETA ONESTEA

Batzordeburu jaunak hasierea emon deutso batzarrari eta, idazkari andreak 2017ko urriaren 4ko 2017/06 aktea irakurri ostean, onetsi da bertaratutako guztien oneritxiagaz.

2.- EUSKERA IKASTEKO DIRU LAGUNTZAK EBAZTEKO PROPOSAMENA

Xedea

2016/17 ikasturteko euskerea ikasteko norbanako diru laguntzak esleitzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: Bermeon erroldatuta dagozan herritarrek euskerea ikasi daien errazteko, Udalak 2017. urteko deialdia onetsi eban 2017ko ekainaren 27ko Tokiko Gobernu batzarrean.

Bigarrena: Diru laguntzak emotea arautzen dauen deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zan 2017ko uztailaren 5ean.

Argudioak

Lehenengoa: Negu zein udako ikastaroa egiteagaitik diru laguntza jasoteko eskaerea 50 lagunek egin dabe eta horreetatik,

- Eskatzaile batek asistentzia txarra izan dau
- Eskatzaile batek HABEren diru laguntza jaso dau eta ez jagoko udalaren diru laguntza, gain-finantzazinoa ez izateko.
- Bost eskatzailek HABEren diru laguntza jaso dabe eta udalaren diru laguntza txikiagoa jagoke, gain-finantzazinoa ez izateko.



Proposamena

Goian aitatutako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau proposatu jako **Tokiko Gobernu Batzarrari:**

BAKARRA: Euskerea ikasteko Eskatu daben herritarrei 2016/17 ikasturtean euskerea ikastearren diru laguntza emotea. Zenbatekoa: 7.641,07 €. Ordainketa Euskera Sailaren 2017ko aurrekontuko 4810315 partidearen pentzura egingo da.

3.- GURASOENTZAKO EUSKERA ESKOLEN KONTRATUA

Xedea

Gurasoentzako euskera eskolak antolatzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: Hainbat gizarte-esparrutako eragileen euskerearen gaitasuna areagotzeko Euskara Sustatzeko Ekintza Planak euskera ikastaroak antolatzea eta bultzatzea aurreikusten dau. Hori dala eta, Euskera Sailak urtero eskaintzen dauz euskera eskolak gurasoentzat.

Argudioak

Lehenengoa: Aurtengo ikasturterako talde bi osatu dira, zati bat HABEK finantzatuko dau eta beste zati bat Udalak. AEK euskaltegiak emoten dauz ikastaro honeek, 120 ordukoak dira eta 8 ikasle dabilz ikastaro bakotxean.

Bigarrena: Matrikulagaitik ikasleek ordainduko daben diru-kopurua, 20 € ikasleko, Udalak jasoko dau.

Proposamena

Goian aitatutako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau proposatu jako **Tokiko Gobernu Batzarrari:**

BAKARRA: Gurasoentzako euskera eskolak antolatzeko gastua baimendu, xedatu eta onartzea. Zenbatekoa: 3.533 euro, Euskera Sailaren 2018rako aurrekontuaren pentzura. Kreditu egoki eta nahikoa izatearen baldintzapean gelditzen da, ekitaldi bat lehenagoko gastua dalako.



4.- ETORKINENTZAKO EUSKERA ESKOLEN KONTRATUA

Xedea

Etorkin helduentzako euskera eskolak antolatzea.

Aurrekariak

Hainbat gizarte-esparrutako eragileen euskerearen gaitasuna areagotzeko Euskara Sustatzeko Ekintza Planak euskera ikastaroak antolatzea eta bultzatzea aurreikusten dau. Hori dala eta, Euskera Sailak urtero eskaintzen dauz euskera eskolak etorkin helduentzat.

Argudioak

Lehenengoa: Ikastaro honeek antolatzeko HABEk finantzazinoa eskaintzen dau, beti be, ezarritako baldintzak bete ezker eta aurten osatu diran talde biek beteten dabez baldintzak. HABEk finantzatzen ez daben zatia Udalaren pentzutuan doa. Gotzon Garitaonandia euskaltegiak emoten dau ikastaroa, 60 orduko modulo bitan. 20 ikasle dabilz ikastaro honetan talde bitan.

Bigarrena: Matrikulagaitik ikasleek ordainduko daben diru-kopurua, 10 € ikasleko, Udalak jasoko dau.

Proposamena

Goian aitatutako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau proposatu jako **Tokiko Gobernu Batzarrari**:

BAKARRA: Etorkin helduentzako euskera eskolak antolatzeko gastua baimendu, xedatu eta onartzea. Zenbatekoa: 1.393,60 euro, Euskera Sailaren 2018rako aurrekontuaren pentzura. Kreditu egoki eta nahikoa izatearen baldintzapean gelditzen da, ekitaldi bat lehenagoko gastua dalako.

5.- IKASLE ETORKINENTZAKO EUSKERA ESKOLAK

Xedea

Ikasle etorkinentzako euskera eskolak antolatzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: Ikastetxeen eskaria aintzat hartuz, Bermeon eskolatuta eta kanpotik etorritako ikasleei laguntza eskolak emotea ontzat hartu eban Euskera



Batzordeak 2005-2006 ikasturtean eta harrezkero, antolatu dira ikastaroak ikasle horreentzat.

Bigarrena: Ikasturtez ikasturte egindako lanaren aldeko balorazioa egin dabe egitasmo honen parte diranek, hau da, ikastetxeek, Gotzon Garitaonaindia euskaltegiak, Gizarte Ongizaterako Udal Patronatuak eta Udalaren Euskera Sailak.

Argudioak

Gotzon Garitaonaindia euskaltegiak aurkeztu dauen lan proposamenaren arabera, 5 talde osatuko dira, 7 eta 15 urte bitarteko ikasleakaz, guztira 43 ume, ikastetxe guztietakoak, 35 orduko ikastaroa egiteko, astean bi egunetan, egunean ordubete, urtarriletik eta maiatzera arte.

Proposamena

Goian aitaturako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau proposatu jako **Tokiko Gobernu Batzarrari:**

BAKARRA: Ikasle etorkinentzako euskera eskolak antolatzeko gastua onartzea. Zenbatekoa: 6.912,50 euro, Euskera Sailaren 2018rako aurrekontuaren pentzura. Kreditu egoki eta nahikoa izatearen baldintzapean gelditzen da, ekitaldi bat lehenagoko gastua dalako.

6.- BERBALAGUN EGITASMOA GARATZEKO KONTRATUA

Xedea

Berbalagun egitasmoa kudeatzeko zerbitzuaren esleipena.

Aurrekariak

Lehenengoa: Kontratu honen xedea *Berbalagun* egitasmoa kudeatzeko zerbitzua emotea da.

Argudioak

Lehenengoa: 2017ko urtarriletik abendura bitarte Euskaraz Kooperatiba Elkarte-AEK-k egindako lanaren balorazioa ona da, egindako lanen memorian ikus leikenez, eta egokia da urte osoan zerbitzua emoten jarraitzea.

Proposamena

Goian aitaturako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau proposatu jako **Tokiko Gobernu Batzarrari:**



BAKARRA: *Berbalagun* egitasmoa 2018ko urtarriletik abendura bitarte kudeatzeko zerbitzua Euskaraz Kooperatiba Elkarte-AEK-ri esleitzea prezio honetan: 16.000 € BEZa salbuetsia, Euskera Sailaren 2018rako aurrekontuaren pentzura. Kreditu egoki eta nahikoa izatearen baldintzapean gelditzen da, ekitaldi bat lehenagoko gastua dalako.

7.- 2018/2022 ALDIRAKO PLAN ESTRATEGIKOA OSOTZEKO LANAK

Xedea

2018/2022 aldirako Plan Estrategikoa osotzeko lanak.

Aurrekariak

Lehenengoa: Bermeoko Udalak udalerrian euskara sustatzeko Plan Estrategikoa osotzen dau eta indarrean dagoana 2017. urtean amaituko danez, 2018/2022 aldirako prestatu beharra izan dau eta bera osotzeko lanak Elhuyar Aholkularitzari esleitu eutsazan.

Bigarrena: Aktibazio taldea osotu zan, herritarrakaz eta batzar bitan, oraingo planaren ebaluazioa aztertu eta datorren aldirako proposamena landu da.

Hirugarrena: Proposamen hori jasota, plana idazketa fasean dago eta behin betikoa osotzeko hainbat ekarpen jaso gura dira.

Argudioak

Lehenengoa: Aktibazio taldean parte hartu daben herritarrek egindako ekarpenaz gain, beste agente batzuen ekarpena be beharrezkoa da, hala nola, Euskera Aholku Batzordearena, hainbat udal teknikarirena, Euskera Batzordearena eta Gobernu Taldearena. Horreek guztiak jasotzea aurreikusita dago urtarrilera bitarte, Osoko Bilkurak otsailean onesteko.

Eta horren informazioa emoten da, Euskera batzordekideak jakinaren ganean egon daitezana.

8.- EUSKARALDIAREN DINAMIZAZIORAKO ZERBITZU-KONTRATUA. 2018. URTEA

Xedea

Euskaraldia, 11 egun euskaraz egitasmoa dinamizatzeko zerbitzuaren beharrezana.



Aurrekariak

Lehenengoa: *Euskaraldia, 11 egun euskaraz* egitasmoa landuko da Bermeon, Euskal Herriko hainbat herrigaz batera, eta 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitarteko egunetara heldu aurretik, hainbat lan aurreikusten dira.

Bigarrena: Egitasmoa dinamizatzeko eta jagokon esleipen prozedura bideratzeko baldintza agiri tekniko eta administratiboak onetsi beharra dago.

Argudioak

Lehenengoa: *Euskaraldia, 11 egun euskaraz* egitasmoaren helburu nagusiak, hauek dira: hizkuntza ohiturak aldatzeko epe luzeko lan progresiboa abiatzea, pertsona eta entitateen erantzukizun partekatua izatea eta Euskal Herriko euskalgintza eta erakundeak elkarlanean aritzea.

Bigarrena: Egitasmoaren sustatzaileak 27 entitate dira, bai erakunde publikoak, (Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, Nafarroako Gobernuak, Ipar Euskal Herriko Euskal Elkargoa eta Euskararen Erakunde Publikoa, Eudel, Uema, aldundiak, EHU, UEU), baita hainbat arlotan ari diren euskararen erakundeak ere (Euskaltzaleen Topagunea, Kontseilua, Bai Euskarari ziurtagiri elkarteak, Ikastolen Elkarteak, Sortzen, Euskal Konfederazioa, Aek, Tokikom, Soziolinguistika Klusterra, Berria, Eusko Ikaskuntza, Irrien lagunak, Hizkuntza eskubideen Behatokia, Emun, Elhuyar, Artez).

Hirugarrena: Egitasmoa bideratzeko, herriz herri batzordeak sortuko dira eta Bermeon elkarlanean jardungo dira interesa duten herritarrak eta Udala, arlo hauek lantzeko: komunikazioa, formazioa, eta harremanak. Batzordearen lana dinamizatzeko eta azkartzeko beharrezkoa da lan jardun erdiz arituko den pertsona baten laguntza izatea.

Laugarrena: Egitasmoaren koordinazioa eta kudeaketa Euskaltzaleen Topagunearen ardura da eta beraz, erakunde hau da bakarra Bermeon behar dugun zerbitzua eman ahal izateko, beste erakunde edo enpresak ez baitu zerbitzu hau emango.

Bosgarrena: 2018ko aurrekontuan egitasmo honetarako esleituko dan diru-kopurua kontuan izanda, egokia da publizitate bako prozedura negoziatu bidezko esleipen-prozedura bideratzea, prezio honetan: 22.900 € + 4.809 € (BEZ) = 27.709 €.

Proposamena

Goian aitaturako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau proposatu jako **Alkatetzari:**



Euskaraldia, 11 egun euskaraz egitasmoa dinamizatzeko zerbitzua 2018ko otsailaren 1etik abenduaren 31ra kudeatzeko prozedurari hasiera emoteko, baldintza agiri teknikoak eta administratiboak onestea.

9.- TELP BALORAZINOA

Xedea

TELP tailerraren balorazioa

Aurrekariak

Lehenengoa: Urteko kudeaketa planean zehaztu bezala antolatu da TELP tailerra:

Data:	2017-11-15, 2017-11-22 eta 2017-11-29 (eguztenak)
Non:	Kultura Etxeko Hitzaldi Aretoa
Ordutegia:	2017-11-15ean eta 22an: 10:00-13:30 2017-11-29an: 10:00-13:00
Dinamizatzailea:	Emun aholkularitzea

Bigarrena: Tailerrean izena emon daben langileak honeek izan dira:

<u>IZEN-ABIZENAK</u>	<u>LANPOSTUA</u>
30.689.708	Kultura animatzailea
30.667.258	Kultura administrari laguntzailea
78.862.598	Kontu-hartzailea
78.870.775	Administraria / Alkatearen idazkaria
30.598.360	Oinarrizko Lanbide Heziketa ikastetxeko administrari lag.
14.262.036	Behargintzako zuzendaria
30.675.977	Behargintzako formakuntza teknikaria
45.667.758	Itsasontziko mantentze langilea
30.682.054	Informatzailea / Gida turistikoa
30.612.939	Garbitasun laguntzailea
11.918.905	Azokako arduraduna
78.888.230	Arkitektoa
78.875.626	Gazte Ekimen Zerbitzuko (GEZ) arduraduna
15.396.968	Berdintasun teknikaria

Hirugarrena: Tailerra osorik egin daben langileak eta beraz, tailerraren aprobetxamentu osoa izan dabenak honeek izan dira:



<u>IZEN-ABIZENAK</u>	<u>LANPOSTUA</u>
30.689.708	Kultura animatzailea
30.667.258	Kultura administrari laguntzailea
14.262.036	Behargintzako zuzendaria
45.667.758	Itsasontziko mantentze langilea
30.682.054	Informatzailea / Gida turistikoa
30.612.939	Garbitasun laguntzailea
78.875.626	Gazte Ekimen Zerbitzuko (GEZ) arduraduna

Tailerraren balorazino orokorra

- Tailerrean 14 lagunek emon eben izena. Aurrelan dezente egin behar izan dau Euskera Sailak tailerra aurrera ateratzeko.
- Langile batzuegan sumatu da euskerea ez dala lehentasunezko gaia; nahiz eta egokitzat jotzen dan formazino hau langile konkretu batzuen lanpostuen eginkizunen arabera, ez jako behar besteko garrantzia emon hizkuntza arloan bideratutako formazino honi.
- Tailerraren asistentzia ez da aurreikus eitekean bezain ona.
- Ikastaroaren balorazino orokorra parte hartzaileek esandakoaren arabera, oso ona izan da. Ikusi I. eranskina.

Laburbilduz, honakoak azpimarratu dabez parte-hartzaileek: erderearen erabilerearen ganeko hausnarketea egin dabela, kontzientzia hartzeko balio izan deusela, gusturago sentitzen dirala ikastaroa egin eta gero, euskeraz egiteko dagozan aukerak identifikatzeko baliagarria izan dala, egoera jakin batzuei aurre egiteko baliabideak eskaini deusiezala...

Bestalde, zenbait langilek tailerra egin baino lehen, ordu gehiegi ete ziran eretxia baeukien be, tailerra bideratutakoan, laburregia izan dan sentsazioa izan dabe.

- Dinamizatzaileak Euskera Sailari adierazitakoaren arabera, parte hartzea ez da izan espero zana, baina oso talde ona izan da, parte hartu daben langileak pozik egon dira tailerrean eta parte hartzaileek egindako balorazinoak ikusita, lan ona egin izanaren sentipenagaz geratu da.
- Zazpi langilek hartu dabe formazino bere osotasunean (izena emon daben langileen erdiak). Beraz, asistentzia ez da ona izan, baina alderdi



positiboari erreparatuta, eta gehitzea beti danez ona, positibotzat jotzen da udaleko beste zazpi langile gehiagok eginda izatea TELP tailerra, kontuan izanda baliabide oso egokia dala euskerea lan eta zerbitzu hizkuntzea euskerea dan administrazio batean.

- Langileen esku jarritako baliabide hori gehiago optimizatzeko aukera errealak asko izan dira, baina euskerearen erabilerearen formazioak ez dauka beharko leuen zentralidaderik edota beste lehentasun batzuk gailendu dira.
- Aitatu behar da 2. saioaren egun berean, udal kudeaketan garrantzitsua dan batzar bat jarri zala tailerraren ordu berean, eta langile bik alde egin ebela tailerretik. Holako kasuetan, egokia litzateke kontuan hartzea zein langilek hartuko daben parte batean eta bestean, eta bat etorri ezker, aurrerago antolatutakoa errespetatzeko ahalegina egin.
- TELPa zazpi langilek egin ostean, 30 dira TELP ziurtagiria daukien udal langile eta arduradun politikoak.

10.- 2017-18 IKASTURTEAN EUSKERA ESKOLETAN MATRIKULATUTAKO LANGILEAK

Lehenengoa: Euskera batzordeak 2017ko martxoaren 29an egindako batzarrean, udaleko 14 langile, GOUPeko 5 langile eta Kirol Patronatuko langile 1 eskolatzeko proposamena egin eban. Guztira 20 langile eskolatzeko proposamena.

Bigarrena: 2017ko maiatza eta ekaina bitartean, Langileria teknikariak eta Euskera teknikari-trebatzaileak batzarrak egin ebezan, lanpostuaren hizkuntza eskakizuna egiaztatuta ez daukien langileakaz, udalak eskaintzen dauzan baliabideen barri emoteko (euskaltegiko ikastaroak eta zeharkako prestakuntza), eskolatzeko eta lanpostuaren hizkuntza eskakizuna lortzeko daukan garrantziaz ohartzeko eta euren sentsibilizazio lana egiteko.

Hirugarrena: Lanpostuaren hizkuntza eskakizuna gaintu barik eta eskolatzeko proposamena egin jaken langileetatik, 8 langilek egin eben eskolatzeko matrikulea maiatzean, baina arrazoi desbardinak dirala-eta, 4 langile ez dira eskolatu.

Laugarrena: Lau dira eskolatzeko proposamena egin jaken langileetatik eskolatu diranak. Honek dira:



Langilearen NAN zk.	Lanpostua eta saila/erakundea	Lanpostuaren HE	Lanp.aren HE egiaztatuta bai/ez	Baimena
78.901.961	Arreta zuzeneko laguntzailea (GOUP)	1.he	Ez	Lanorduz kanpo
78.914.612	Arreta zuzeneko laguntzailea (GOUP)	1.he	Ez	Lanorduz kanpo
30.604.637	Igeriketako monitorre soroslea Udalaren Kirol Patronatua	2.he	Ez	Lanorduz kanpo
22.731.577	Soldagintza irakaslea (Oinarrizko Lanbide Heziketa)	3. he	Ez	Lanorduz kanpo

Proposamena

LEHENENGOA: Langileria Sailari, Udalaren Kirol Patronatuari eta GOUPi, 2017-18 ikasturtean euskera ikastaroetan eskolatuta dagozan langileen barri emotea.

BIGARRENA: Jakinarazotea Euskera Sailak hilez hileko jarraipena egiten deusela eskolatutako langile horreei.

11.- OSAKIDETZAKO SAIOAK

Xedea

Guraso barri izan diranentzako saioak Bermeoko Osasun Etxean.

Aurrekariak

Lehenengoa: Bermeoko Osasun Etxeko arduradunak eskatuta, guraso barri izan diranentzat antolatzen dabezan ikastaro eta tailerretan guraso eta seme-alaben arteko hizkuntzaren transmisinoaz saioak emotea ontzat hartu dau Euskera Sailak eta teknikaria izan da tailer bitan.



Bigarrena: Abenduaren 12an eta 14an izan diran tailerretan 17 gurasok parte hartu dabe eta balorazioa ona izan danez, hiru saio-motatan parte hartuko dogu aurrerantzean, pediatriako urgentzietako tailerrean, masaje tailerrean eta erditu aurreko ikastaroan.

Argudioak

Lehenengoa: Osasun Etxeko arduradunek eskatutakoa bat dator Euskera Sailak familia bidezko transmisinoaren inguruan egiten dauen lanagaz eta aukera ona da guraso izan barriakaz batera gai horretaz hausnartzeko.

Bigarrena: Saiotako helburuak honeek izan dira: Transmisinoari buruzko hausnarketa eragin gurasoengan, informazioa eta baliabideak emon eta gurasoen eritxiak, nahiak, kezakak... jaso

12.- ESKARIAK ETA ITAUNAK

Jon Goikolea jaunak Plan Estrategikoaren dokumentazioa prest dagoanean zinegotziei bialtzeko eskatu dau.

Eta aztertzeko gai gehiago barik, amaitutzat emon da batzarra, goiburukoan aitatutako ordu, egun eta leku berean, eta nik, idazkariak, erabagitakoa eta eztabaidatutakoa jasota geratu daiten, hori guztia idazten dot.

BATZORDEBURUA

IDAZKARIA

